

EIDER MENDOZA

Eibar, 2023ko maiatzaren 21an

Diskurtso orientagarria. Hizlariak mitinean zehar ematen duen hitzaldia izango da balio duen bakarra.

Discurso orientativo. El único discurso válido será el que finalmente pronuncie el orador u oradora en el transcurso del mitin.

Arratsalde on.

Lehenik eta behin, zorionak eman nahi dizkiet Eibar taldeko emakumezkoiei, merezimendu osoz Lehen Mailara itzuli direlako. Eta zorte ona opa gizonetzkoen taldeari, atzo 0-2 galtzen joan ondoren, altxatu eta partidua berdintzea lortu zutenak. Horri esker, oraindik ere Lehen Mailara igotzeko borrokan jarraitzen dute. Gipuzkoa osoaren babesza duzue!

Anekdotak

Pertsonalki, sinpatia handia diot Eibarri, ez bakarrik kirol taldeei, baizik eta herriari berari, pixka bat eibartarra ere banaizelako. Nire aitona-amonak ziren hemengoak, eta nire ama ere hemen jaio zen. Txikitatik entzun izan ditut hemengo historiak, Eibar zaharrari buruzko pasadizoak. Bihotz industrialak zuen herri hura, ia-ia etxe azpi bakoitzean, garaje bakoitzean, tailer bat zuena.

Seguraski amerikanoa baino glamour gutxiagorekin, baina gure Sillycon Valley izan zen Eibar hura! Hemengo indarra eta bulkada ekintzailea!

Lehenengo balioak

Ez dut nostalgikoa izan nahi, ze garaiak asko aldatu dira. Baina ze BALIO zeuden, zer zegoen Eibarko eta Euskal Herri guztian gure industria eta aurrerabidea bultzatu zuten ekintzaile eta langile haietan?

Lanerako kultura jakin bat, hobetzeko nahia, ondo egindako lana, ardura, esfortzua, sakrifizioa, konpromisoa! Baina baita sozialki pertsona langileak balioestekoa ere.

Horiek izan dira baserriko kulturaren zutabeak, baina baita tailer eta enpresetako gure kultura ere.

Lana gogor, berrituz, elkarlanean eta epe luzera begira, baserriari edo etxeari bezala, enpresari ere luzera eusteko. Horiek izan dira euskaldunon balioak lanean, hamarkadaz hamarkada gure nortasunean errotu direnak.

Pertsonak

Eta gaur egun, zer daukagu? Garaiak aldatu egin dira, eta lan motak, merkatua eta munduko ekonomia lehiakorra ere bai. Eta baita gizartea ere: indibidualismoaren eta edonismoaren gorakada bizi ditugu. Baina gure herrira begiratzen badugu, zer daukagu gaur?

Gaur ere daukaguna PERTSONEK egin dezakeguna da: ez baliabide naturalik eta ezta bestelako berezko aberastasunik ere. Pertsonak gure lanaren eta talentuaren bidez egiteko gai garena. Horixe da gure herriak iraganean izan duen indargunea, eta horixe da gure indargunea oraindik ere. Atzo eta gaur, giza kapitala, euskaldunon motorra!

Iraganetik hona, onerako aldaketak ere egon dira. Zorionez, emakumea lan mundura inkorporatu da, honek dakarren ahalduntzearekin.

Eta lanaren eta bizitza pertsonalaren eta aisialdiaren arteko erlazioa asko aldatu da. Baina ojo! Hemen lanik gabe ez dago ezer! Indibidualismoak, kontsumismoak, errazkeriak edo erosokeriak ez gaituzte etorkizun hobera eramango

Ondo bizi nahi dugu. Gozatu! Noski! Baina ez lanari bizkar emanda, lana eginda baizik! Lanean onak izan behar dugu, lanetik kanpo ondo bizitzeko denok! Nola aterako dugu bestela herri hau aurrera?

Ezin dugu lo hartu! Ezin dugu lo hartu! Lana egin behar dugu eta lana ONDO egin behar dugu. Ondo egindako lanak bakarrik, arduraz eta konpromisoz lan egiteak bakarrik eramango gaitu aurrera.

Horrek bakarrik eramango gaitu aberastasuna sortzera eta lehiakor izatera, gure ongizate mailari eustera.

Eta badakigu egiten, herri honetan badakigu egiten!

Eusko Alderdi Jeltzalean badakigu egiten!

Gure aitona-amonon Eibarrek bazekien egiten, gure aurreko belaunaldiek asmatu zuten, eta guk ere jakingo dugu egiten.

Lanaren eta esfortzuaren kultura, gure DNAn daramagulako!

Aurrera, batera!
Euskadi
Mira al futuro



...

Solo saldremos adelante a través del trabajo bien hecho, trabajando con responsabilidad y compromiso.

Solo así conseguiremos a crear riqueza y seguir siendo un país competitivo, manteniendo nuestro nivel de bienestar.

¡Y lo sabemos hacer! ¡Este país lo sabe hacer!

¡El Partido Nacionalista Vasco lo sabe hacer!

Nuestros abuelos y abuelas eibarresas sabían hacerlo, la anterior generación también acertó, y nosotras también sabremos hacerlo.

¡La cultura del trabajo y la cultura del esfuerzo, las llevamos en nuestro ADN!

Ekonomiarekiko jarrera

Hala ere, ez gaitezen erlaxatu. Ez dezagun guardia jaitsi.

Balioak izateak, gure iragan industrialak edo gaur egun Gipuzkoak eta Euskadik dituzten oinarri ekonomiko sendoak ez dute etorkizuna ziurtatzen.

Ezta inolaz ere!

Gure ehun ekonomikoa zaindu egin behar da.

Gure ekonomia egiten duten pertsonak zaindu behar dira:

Enpresa bat sortzea erabakitzen duen pertsona.

Egunero tailerreko atea irekitzera altxatzen den jabea.

Bere kabuz negozio bat irekitzera animatzen diren ausartak.

Goizetik gauera lanean dabiltzan autonomoak

Zer esanik ez, egunez egun gure enpresak aurrera ateratzea ahalbidetzen duten langileak.

Sozialki, altxor bat dira, eta denei hazten lagundu behar diegu.

Ez albotik “tontotzat” hartuz, balioetsiz eta prestigiatur baizik!

Eusko Alderdi Jeltzalean beti izan dugu argi hau guztia.

Baina, tamalez, herri honetako aukera politiko denek ez dute ikuspegi bera.

Ezta gutxiagorik ere.

Ezker abertzalea

Zeren eta bajatu gaitzen lurrera: zer da ezker abertzalea proposatzen ari dena?

Zer da “politika industria enpreedora” bezala aurkezten duten plangintza hori?

Rediseño, mejora de posicionamiento, desarrollo de cultura de innovación... Dena inungo konpreziorik gabe!

Pozten gara Mariana Mazzucatoren “El estado emprendedor” liburua deskubritu dutelako. Marxistak ez diren guruak ere badituzte jada!

Herri honetan, gure erakundeek 40 urte baino gehiago daramatzate politika industrial egiten

Liburuetan, nazioartean eta unibertsitateetan ikasia, etxe ondoko tailer eta enpresako pertsonekin batera, elkarlanean martxan jartzen. Eta portzierto! Badakizue Mazzucato bera ere Euskal Herrira noren eskutik iritsi zen? EAJk gidatutako erakundeen eskutik. Hamarkadaz hamarkada beste gauza batzuetan egon direnak, orain ekonomia nola antolatu behar den lezioak ematen hasi zaizkigu

Nola eraiki nahi dute industria enpresariekin kontaktu gabe? Nola, enpresen kontrako fiskalitatea bultzatuz? Nola, berrikuntzari hegoak moztuz? Nola sortuko dute hauek kalitatezko enplegua? Uzta jaso nahi dute, baina erein gabe, lurra ureztatu gabe!

Eskubideak eduki, ardurarik gabe!

Aberatsak garela uste dute, eta aberastasun hori zerutik erortzen zaigula.

Baina non bizi dira?

Eta zaintzen ez dena, hori seguru haiek ere badakitela, usteldu egiten da. Higatu, gastatu. Galdu!

Eta hauek hartu behar dute gure erakundeen ardura? Hauek jarri behar ditugu gure ekonomiaren lemazain? Hauek! Ez dute eredu ekonomikorik, ez dute norabiderik!

Ekonomia: gurea

Aldiz, Eusko Alderdi Jeltzaleak Gipuzkoan aurkeztu duen programan, hauteskunde hauetan defendatzen dugun programan, lehenengo helburua da “Ekonomia sendo eta lehiakor bat eraikitzea”. Lehenengoa!

Helburu bat. Bost lehentasunezko arlo. 15 azpi lerro. Ia 100 neurri konkretu.

Eta etorkizuneko gure ekonomiaren oinarri izango diren 11 proiektu estrategiko martxan.

Bide orria, argi daukagu!

Ekonomia sendo eta lehiakorra eraikitzea, funtsezkoa delako familien ekonomia babestu eta kalitatezko enpleguaren sorreran eragiteko. Sortu, eta gero banatuko dugu. Baina lehenik eta behin sortu, eta guk, erakundetatik, sortzen lagundu!

Hori da gure lehentasuna, hori da gure ongizate sistemaren oinarria. Iraganean genituen balio haiei eutsiz, baina etorkizuna jarriz beti iparrorratz. Badakigulako, jokoan dagoena, herri honen biharko ongizatea dela.

Gure seme-alaben ongizatea!

Eta inkonformistak gara, ez gaude prest onartzeko belaunaldi berriak mundu okerrago batean biziko direla dioten horien diskurtsoa!

Eredu sozioekonomikoa

Gipuzkoan, eta Euskadin, denon artean, baina Eusko Alderdi Jeltzalearen gidaritzapean, eredu sozioekonomiko propioa eraiki dugu.

Ekonomia lehiakorra eta babes sozialeko sistema sendoan jarri izan dugu arreta, gure ahaleginaren onena. Beste batzuk ustezko “iraultza” egiten ari ziren bitartean, gu eraikuntzan egon gara. Baiezkoan! Aurrerabidean!

Eraikuntza demokratikoan! Etika eta politika uztarri berean lotuta, konbikzio osoz. Eta orain ere ETArekin katiatuta dabilzan bitartean, guk programa landua eta zehatza jarri dugu mahai-gainean. Hamarkadaz hamarkada, etxeari eutsi diogu!

Eta orain ere horretan jarraituko dugu; etxea zaintzen eta sendotzen!

Gure belaunaldia

Gure aurrekoek lan handia egin dute eta gauden tokiraino ekarri gaituzte. Eta orain guri dagokigu ardura hori hartzea. Gure belaunaldiari dagokio datozen urteetan Gipuzkoa bultzatzen jarraitzeko erronkari aurre egitea. Gure aitona-amonon Eibar berpiztea. Euskadi indartzen segitzea.

Eta ilusioz eta indarrez hartzen dugun konpromisoa da. Ezkortasunaren aurrean, ilusioa.

Arazoen aurrean, soluzioak. Akatsen aurrean, zuzenketak. Ziurgabetasunaren aurrean, ziurtasunak. Indefinizioaren aurrean, 350 puntuko programa landua. Ezkortasunaren aurrean, jarrera eraikitzailea.

Katastrofismoaren aurrean, konfiantza. Utopiaren aurrean, errealismoa. Hankak lurrean, Egibarrek esan ohi duen bezela! Madrilera begira bizi direnen aurrean, Eibar, Gipuzkoa eta Euskadi! Zirkuaren aurrean, herrigintza arduratsua. Gure estilora, gure aitona-amonon balioei helduz: lana, lana eta lana! Maiatzaren 28an, bozkatzera eta irabaztera!

Eusko Alderdi Jeltzalearen eskutik!

Sendo, eta konfiantzarekin!

Aurrera, batera!